

PERTSONAIA PROTAGONISTA FEMENINOEN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA EUSKAL NARRATIBA GARAIKIDEAN

Tesiaren egilea: Gema Lasarte Leonet

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: María José Olaziregi Alustiza

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen ekarpenik esanguratsuena ondokoa baieztatzea izan da: euskal emakume idazleek, eleberrigintza garaikidean, pertsonaia protagonista femeninoak erabiltzen dituztela egitura narratiboetan. Horri erantsi behar zaio emakume idazleak pertsonaia protagonista femenino berria proposatzera etorri direla eta, horretarako, kritika feministak aipaturiko hainbat estrategia erabili dituztela.

Emakume idazleek diskurtso bakoitzari dagokion pertsonaia protagonista femeninoa egokitu diotela esan daiteke, beraz, bai gaiari erantzuten dioten kezka, esperientzia, espazio eta gorputz-kudeaketa berriak proposatuz, bai emakumeen arteko harreman-konstelazio berriak iradokiz, edota familia tradizionalaren krisia erreferente gisa erabiliz.

Ondorio hauek 1979tik 2009 arteko euskal emakume idazleen corpusa ikertzearen emaitza dira. Aipaturiko tenore horretan euskal emakume idazleek 27 eleberri ekoiztu zituzten subjektu femenino protagonistekin, eta beste bederatzi subjektu kolektibo nahiz maskulinoekin.

Tesi honen azterketa-corpusa hautatzeko hainbat irizpide erabili da. Horrela, corpusa justifikatzen da ikerketa epe batera inskribatuz (1979-2009), eleberrigintzara mugatuz, eta emakume idazleek sortutakoa ikertzera lerratuz. Esan behar da 1979a hartu dela tesi-ikerketaren abiaburu, data horretantxe sortu zelako euskal literaturan estreinakoz lehen protagonista femenino eta modernoa: Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* (1979) eleberriko Ama. Lehen literatur pertsonaia femenino protagonista izateaz gain, estreinakoz euskal literaturan, pertsona horrek 70.eko hamarkadako emakumezkoaren askapen-mugimenduaren gaiak ditu so-lasgai: bikote-harremanak, amatasuna, emakumezkoen gorputza, emakumezkoen ahotsa, antisorgailuak, egunerokotasunaren zama...

Arrazoi horiek gogoan, tesi honek proposatu nahiko luke *Zergatik panpox*eko ama hori, ekarpen modura, euskal kritika bibliografikoak eginiko euskal literatur pertsonaien historia laburrean sartu beharko litzatekeela. Orain arte, euskal

literatur pertsonaien historia laburrean, ondoko hiru hauek aipatu izan dira: Txomin Agirreren Joanes artzaina (*Garoa*, 1912), pertsonaia laua, elizaren eta baserri giroaren paradigma; Txillardegiren Leturia (*Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957), pertsonaia biribila, industrializazio osteko gizakiaren homologoa; eta Saizarbitoriaren Berritsua (*Egunero hasten delako*, 1979), izenik gabeko pertsonaia postmodernoa. Beraz, horiekin batera, *Zergatik panpoxeko* ama proposatu nahi da, lehen literatur protagonista femeninoa izateaz gain, postmodernoa eta estreinakoz emakumeen gaiak hizpide izan dituelako eleberrigintza garaikidean.

Tesi honek paradigma teoriko-metodologiko diferenteetatik egindako ekarpenak kontuan izan ditu, literatur pertsonaiak modu sistematikoan aztertu ahal izateko. Testu barrurako ikuskera lantzeko, narratologia/semiotika kontuan izan ditu; eta, testuz haraindiko ikuskera lantzeko, korrante psikologistak, kritika marxista eta feminista. Esparru anglosaxoian «feminist agenda» deritzo, bestalde, emakume idazleek etenik gabe ardatz tematiko nahiz kontamoldeak errepikatzeari. Guk, bukatzeko, corpusa aztertzeke orduan, ardatz tematiko hauek gogoan, bost kapitulutan banatu dugu ikerketa. Modu autobiografikoa eta memoria; genero-indarkeria; amatasunaren gaineko diskurtsoak; emakumea eta nazioa; eta sexua eta generoaren berridazketa: polizia-eleberrien kasua.